

Liburuak


KRITIKA

Eskuen sustraiak.

Oier Guillan.

Susa.

128 orrialde. 14,50 euro.



Helduen literatura

Igor Estankona

Ametsak eta beste

BEGI BIEN SUJAUZIA (1998, Mikelazulo), eta *Gabeziak* (2001, Birmingham) obra minoretzat ezin daitezkeen arren jo, Oier Guillan gaur dakargun lan honekin sartu da, zalantzarik gabe, arnas luzea eskatzen duen poesian. Liburuaren sei atalek ortuaren eta ortuan ari denaren zikloa definitzen dute –ildoak, hazia, gorotza, eskuak, denbora, lore inperfektuak–. Kurioso da, baina ukitu baserritarrak batasuna ematen dio kale-kantoi globaletik idatzita dagoen liburu honi. Batasun estilistiko handiko liburua da, eta era berean gai asko nahasten ditu. Zabala da *Eskuen sustraiak*.

Idazkera konkretu bat errebindikatu du Guillanek, utopiaren poesia dei dezakeguna. Utopiaren poesia hori norbere burua osatzeko idatzi ohi da, edo barkatzeko, edo terapia moduan, baina beti ere pasioz eta artearen ahaletan sinetsiz: “Ez dut gogoko maitasuna hitza/ ez askatasuna/ ez ametsa.// Kontraesanean bizi naiz,/ esanahien kontrako/ iraultza dutelako xede/ lerro hauek.// Hitzon hezurdura/ berreskuratu nahi nuke/ egunerokotasunetik, xume,/ zintzoki esateko:// maitetudan pertsonak/ tristeziatik askatzea/ dut amets.”

Baina poesiak atera gaitzake tristeziatik? Ez dakit ba apur bat behartutakoak ez ote diren liburuko zenbait eremu semantiko, izan positiboak zein negatiboak: tristezia versus poesia da bat, utopia versus errealitatea da beste bat, azken hau liburuko nagusienetarikoa. Ardatz imajinarioaren alde batean jartzen ditu Guillanek iraultza, ametsak, Lisboa eta loreak; eta beste aldean uniformetasuna, askatasun eza, babes ofizialeko etxeak eta bakardadea. Lirismo sinplera egiten du liburuak lartxo. Poemak bukatzeko modua, ostera, ez da hain ebidentea. Karga handiena azken lerroetan jarritz apur bat jabaltzen da lehen aipatu dugun sentsazioa; bukaera ireki eta enigmatikoen bidez errazkeriatik urrunduta egiten da zertxobait idazlea.

Inoiz egin dudun poemak iradokitzen den legez, espiritu etsituak beste mundu batera gura luke heldu: nahiz eta hitza gauza ezdeusa izan, leku hobea lortzen lagundu behar du. Liburuan emozioen lurraldea eta amets sozialena nahasten dira maiz, eta hitzak horretara behartu eta moldatuak opazten zaizkigu. Behin baino gehiagotan kontzeptu zehatzekin jolastan da Guillan, abstrakzioaren mugetan: “Hau ez da graffiti bat./ Ezagutzen ez dudun paisaia bat sartzen ari zait ahotsean”. ■

Gerraren memoria misterioarekin nahastuta

1994an kokatu du Iñaki Irasizabalek *Gu bezalako heroiak* eleberria. Gizon gazte bat du protagonista. Indautxu auzoan bizi da, Bilbon, aitona-rekin. Agureak suizidiorako joera du, eta piskiatrek uste dute gerrako oroitzapenek badutela zerikusirik horretan. Gaztea saiatuko da aitona gehiago ezagutzen, 36ko gerrari



Gu bezalako heroiak.

Iñaki Irasizabal.

Elkar.

122 orrialde.

12 euro.

buruzko kontu gehiago galdetzen. Baina eleberria ez da nobela historikoa: iragan hurbileko hirian girotua dago, eta hor gaztearen mundua aurkituko du irakurleak. ABLE baten bidez fundizio batean lana aurkitu du; Paularekin dabil; ez dauka bizitzari buruzko ideia argirik. Bi munduek –gerrak eta gaztearen bizimoduak– bat egingo dute nobelaren amaieran. Nola? Ahor, misterioa. ■

Idatz & Mintz-en zenbaki berria

“Literatur atalen sorta” ekarri ohi du izenburuaren azpian *Idatz & Mintz* aldizkariak. Eta 47. zenbaki honetan ere, horixe ekarri du Labayru ikastegiak argitaratu ohi duen agerkariak: literaturari buruzko artikulua, eta sorkuntza lanak. Zenbaki honetan aurkitzen ditugun sinaduren artean, Adolfo Arejita, Jabier Kalzakorta, Iratxe Ormatza, Miren Ibarluzea, Amaia Iturbide, Joseba Aurkenere-na eta Lontzo Zugazaga daude, besteak beste. Andres Urrutiak ere idatzi du, Max Rouquette idazle okzitaniarrari buruz. Eta aldizkariarekin, separata moduan, Jose Gorostizaren *Amaibako beriotza* poesia liburua ere argitaratu dute zenbaki honetan. Josu Landak euskaratu du lan hori gaztelaniatik. ■



Idatz & Mintz.
Batzuen artean.
Labayru.
50 orrialde.
5,70 euro.